Antolatzaileak

Laguntzailea

DoSEL proiektuak liburu elektroniko bat aurkeztuko du Zagreben, ingelesera itzulitako lanak biltzen dituena, tartean, Arriaga Antzokiak proposatutako Kepa Errastiren *Sidari* obra

- **Errastik euskaraz idatzitako lana Europako hizkuntza gutxituetan idatzitako antzezlanak —eta haien ingelesezko itzulpenak— biltzen dituen liburu elektronikoan jasoko da; bildumaren helburua da lanak nazioarteko zirkuituan zabaltzea, hizkuntza- eta nazio-mugak gaindituz.**
- **Argitalpen digital hau *EIGHT PLAYS: Drama of Smaller European Languages* liburu inprimatuaren jarraipena da; non Arriaga Antzokiak Eneko Sagardoyren *Moto-Membra Jesu Nostri* antzezlana jaso du.**

Bilbon, 2026ko urriaren 5ean.- 2026ko urriaren 6tik 8ra, Kroazia Europako antzokien topagune bihurtuko da. Zagrebeko Kroaziako Antzoki Nazionalak DoSEL (*Drama of Smaller European Languages*) proiektuaren amaiera-ekitaldia hartuko du aste honetan, hainbat jarduera barne hartuko dituena. Ekitaldi nagusia Europako hizkuntza gutxituetan idatzitako antzezlanen paperezko eta formatu digitaleko edizioen aurkezpena izango da —hilaren 7ko goizean egingo dena—; saio horretan, parte-hartzaileek lan horiek hizkuntza- eta nazio-mugetatik haratago zabaltzeko modu berriak eztabaidatzeko aukera izango dute.

DoSEL proiektuko (2024–2026) bazkide guztien ordezkariek hartuko dute parte ekitaldian; proiektu hori Europar Batasuneko "Creative Europe" programak kofinantzatzen du. Arriaga Antzokiko ordezkariak bertaratuko dira eta haiekin batera **Kepa Errasti** antzerkigilea ere izango da; izan ere, haren ***Sidari*** lana Zagreben aurkeztuko den liburu digitalean jasota dago. Euskarazko jatorrizko lan hori eta Aritz Brantonek egindako ingelesezko itzulpena liburu digitalean sartzeko hautatutako testuen artean daude.

Izaskun Gracia Quintana itzultzailea ere Kroazian izango da; DoSEL proiektuan parte hartu zuen Jeton Neziraj egile kosovarraren *Aventurat e familjes bosh në Unmikistan* lana euskarara itzuliz. Antzezlan hori *EIGHT PLAYS: Drama of Smaller European Languages* liburu inprimatuan jasotako lanen artean dago. Kroaziako DoSEL ekitaldiak argitalpen hori gehiago sustatzeko ere balioko du; liburua joan den uztailean aurkeztu zen ofizialki Avignongo Jaialdian (Frantzia), European Theatre Convention (ETC)

DoSEL DRAMA OF SMALLER EUROPEAN LANGUAGES

Co-funded by the European Union

Funded by the European Union. Views and opinions expressed are however those of the author(s) only and do not necessarily reflect those of the European Union or the European Education and Culture Executive Agency (EACEA). Neither the European Union nor EACEA can be held responsible for them.

erakundeak antolatutako European Theatre Talks programaren baitan. Liburuak hedapen mugatuko Europako hizkuntzetan jatorriz idatzitako zortzi antzezlanen ingelesezko itzulpenak biltzen ditu. Euskal Herriko, Bulgariako, Kroaziako, Kataluniako, Estoniako, Kosovoko, Maltako eta Esloveniako lanak jasotzen ditu. Nabarmentzekoa da liburuak Eneko Sagardoyren *Moto-Membra Jesu Nostri* antzezlana barne hartzen duela. Horrela, Arriaga Antzokiak —DoSEL proiektuaren sustatzaileetako bat den aldetik— bi lan ekarri ditu argitalpen horietara, dagozkien itzulpenekin batera: *Sidari* edizio digitalean eta *Moto-Membra Jesu Nostri* liburuki inprimatuan.

Kepa Errasti eta Izaskun Gracia Quintana Zagrebeko DoSEL ekitaldira joango dira Etxepare Euskal Institutuaren lankidetzari esker.

Partekatutako proiektua
Zagrebeko aurkezpenak Europako zortzi antzerki- eta kultura-erakunderen arteko urteetako lankidetzaren gailurra markatuko du; erakunde horiek helburu komun batek batzen ditu: Europako hizkuntza gutxiago hitz egiten direnetan idatzitako lanak nazioarteko ikus-entzuleentzat, itzultzaileentzat, antzerkiko profesionalentzat eta arloko beste espezialista batzuentzat eskuragarriago egitea.

Urte anitzeko proiektu honek Europako hizkuntza gutxituetan idatzitako lanen itzulpena, aurkezpena eta nazioarteko ikusgarritasuna izan ditu ardatz; bazkideen artean daude Kranj-eko Prešeren Antzokia, Zagrebeko Kroaziako Antzoki Nazionala, Vallettako Maltako Arte Eszenikoen Agentzia Nazionala, Bartzelonako Sala Beckett, Tallinn-eko Estoniako Antzerki Agentzia, Pristinako Kosovoko Antzoki Nazionala, Sofiako Ivan Vazov Antzoki Nazionala eta Bilboko Arriaga Antzokia. Lankidetza-ahalegin horren bidez, ekimenak Europako antzerki-komunitate anitzak konektatu ditu itzulpenen, truke artistikoen, gonbidatutako konpainien emanaldien —hala nola Arriaga Antzokiak *Moto-Membra Jesu Nostri* ikuskizun propioa Esloveniara eraman izana— eta lankidetza berrien bitartez. Orain, Zagrebeko ekitaldiaren ostean, proiektuak jarraitzea aurreikusten da, nahiz eta hurrengo urratsak oraindik zehaztu gabe dauden.

Proiektuari buruzko argibideak: https://dosel.eu/

DRAMA OF SMALLER EUROPEAN LANGUAGES | DoSEL | EUROPAKO HIZKUNTZA TXIKIAGOEN DRAMA

Informazio gehiago:
Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA Jon Rozadilla Urrutia
comunicacion@teatroarriaga.eus
www.teatroarriaga.eus

DoSEL DRAMA OF SMALLER EUROPEAN LANGUAGES
Co-funded by the European Union

Funded by the European Union. Views and opinions expressed are however those of the author(s) only and do not necessarily reflect those of the European Union or the European Education and Culture Executive Agency (EACEA). Neither the European Union nor EACEA can be held responsible for them.